

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	EUSKARA ETA KULTURA		
IRAUPENA	Ordubete	EGUNA	2017-02-08
GAIA	Udaberri Kulturala	DEIALDIA	19:00etan
PARTE HARTZAILEAK			
Aratz Igartzabal	Arantzazu Baztarrika	Ezin etorria adierazi dute:	Leire Murua
Ane Mire Aizpuru	Jokin Murua	Iban Maiz	
Iñigo Igartzabal		Aimar Maiz	
Jon Ander Larrañaga		Xabat Goikoetxea	
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK		
UDABERRI KULTURALA	<p>Lotzeko falta dena:</p> <p>- <i>Kirolarien mahai-ingurua</i></p> <p>Bi kirolari dauzkagu lotuta (Aimar Irigoien harri-jasotzailea eta Jaione Sasieta mendi-korrikalaria), beste pare batekin nahikoa izango da; batzuekin hitz egin dugu, baina euren erantzunaren zain gaude. Moderatzailea ere ez dugu lotu.</p> <p>- <i>Korrika</i></p> <p>Eskola-umeek apirilaren 6an Korrika Txikia-edo, zerbait, behintzat, egingo dute.</p> <p>Bestela, beste zerbait ere egin daiteke. Korrikako bilera otsailaren 16an izango da</p> <p>- <i>Sukaldaritza ikastaroa</i></p> <p>Xabat arduatuko da norbaitekin hitz egiteaz.</p>		

- *Gazteek antolatutako zerbeit*

Euren gustukoa izango den zerbeit antolatzera bultzatu nahi ditugu (Jokinek hitz egingo du haiekin). Apirilaren 28an edo maiatzaren 5ean edo 6an.

- *UEMA hitzaldi / tailerren bat*

Porrotzek “herrigintza eta irrigintza” hitzaldiak ematen ditu adin ezberdinetara egokituta, baina udaberrian, behintzat, ezin izango da etorri. Hala ere, udazken aldera kasu egiteko esan digu, eta datorren urteko urtarrilerako izan daiteke.

Hori horrela izanda, beste zerbeit antola dezakegu. UEMAkoak, nahiz eta oraindik Gabiria bertako kide ez izan, prest daude euren zerbitzuren bat eskaitzeko. Bileran ez genuen ezer lotu, baina zerbeit egingarria ikusten bada, egingo dugu.

Atxikita bidali dizuet UEMAko zerbitzuen katalogoa!!

- *Gabiriako bertsolarien saioa*

Gabiriako bertsolariekin bertso-saioa egitearen ideia behin baino gehiagotan atera omen da; hala ere, ezer zehaztu gabe daukate. Korrika pasatzen dela aprobetxatuz egitea komentatu zen, euren artean hitz egitekotan gelditu dira (Aratz).

***Udaberri Kulturalerako eskuorriak eta kartelak
otsailaren bukaerarako edo martxoaren
hasierarako ateratzea komeniko da***

**HURRENGO BILERA EKAINAREN 7an,
asteazkena, 19:00etan**